




**Euskal Autonomia Erkidegoko
zebra muskuiluaren (*Dreissena
polymorpha*) larben
jarraipenerako sarea
(URA/003A/2017/PRO)**

TXOSTEN LABURTUA

Behin betiko txostena 2020

Ekolur-Anbiotek ABEE

AGIRI MOTA: Urteko laburpena.

AGIRIAREN TITULOA: Euskal Autonomia Erkidegoko zebra muskuiluaren (*Dreissena polymorpha*) larben jarraipenerako sarea (URA/003A/2017/PRO).

EGILEA: Ekolur-Anbiotek Aldi Baterako Enpresa-Elkartea (ABEE). Barne erref LA20171227.

TEKNIKARI ARDURADUNAK: Henar Fraile Fraile, Manu Rubio Etxarte, Begoña Gartzia de Bikuña, Imanol Cia Abaurre eta Alberto Aguirre Gaitero (ABEEren arduraduna).

LAGUNTZAILEAK: Ana Felipe Díaz, Mikel Lizaso Mujika, Oihan Bengoetxea Percáz, Jesús Arrate Jorrín, Álvaro Fanjul Miranda y Alfredo Llorente González.

DATA: 2020ko abendua.

Aurkibidea

Euskal Autonomia Erkidegoko zebra muskuiluaren (*Dreissena polymorpha*) larben jarraipenerako sarea

Txosten laburtua. 2020.

1. Egindako lanen laburpena.....	1
2. Emaita eta ondorio nagusiak.....	2

1.

Egindako lanen laburpena

2017 urtean Ekolur-Anbiotek Aldi Baterako Enpresa-Elkartea (aurrerantzean, Ekolur-Anbiotek ABEE) “EAEko zebra muskuiluaren larben jarraipenerako sarea (2017-2019 kanpainak)” izeneko lanaren esleipenduna izan zen. 2020.urtean lan berdinarekin jarraitzen da, luzapenaren esleipenduraren bitartez (URA/003A/2017/PRO espedientea).

Zebra muskuiluaren larben jarraipena egiteko 2020. urtean, ekaina eta irila artean, 4 laginketa-kanpaina egin dira eta guztira 75estazioetan laginak hartu dira (34 Bizkaiko Lurralde Historikoan, 26, Araban eta 15 Gipuzkoan).

2020. urtean lagindu diren estazio-mota gehienak ur motelak dituzten ibai-ibilguak edo presa txikiak dituztenak izan dira (43 guztira), urtegiak (20 guztira), 9 baltsa eta 3 hezegun.

Banaketa espazialari, lagindutako masa motari eta laginketa-metodologiari dagokienez, aurreko urteetan diseinatutako oinarritzko sarea aintzat hartu bada ere, zuzenketa batzuk sartu dira. Alde batetik, masa batzuetako estazioak bertan behera utzi dira: espeziearen presentzia handia duten estazioak, bai eta estazio kopuru altua duten zenbait masatako estazio batzuk ere. Bestetik, estazio berriak gehitu dira, positibo berriak atzeman direlako edo eremu horietan zabalkuntza aurreikusten delako. Zebra muskuiluaren larben jarraipenerako sarearen barnean, 2020 urtean egindako 4 laginketa-kanpainak kontuan hartuta, guztira 299 lagin aztertu dira.

Zehaztasun gehiagorako, kontsultatu Azken Txostena (LA20171225 Ekolur-Anbiotek ABEE)

2.

Emaizta eta Ondorio Nagusiak

Urrunaga, Mendikosolo, Undurraga, Ullibarri-Ganboa, Lekubaso eta Aixola urtegiatako zebra muskuiluaren hedapena agerikoa da. Horregatik, urteetan zehar jarraipen saretik kanporatzen joan dira. 2020.urtean aztertutako estazio guztietatik 7tan agertu dira larbak; horietako bat, urtegi motatako estazioa izan da (Gorostiza) eta 6, ibailetako estazioak (Zadorra, Santa Engrazia, Arratia eta Ibaizabal ibailetan)

2020. urtean Gorostiza (Barakaldo, Bizkaia) urtegian larben presentzia baieztatzen da, 2 subpositiboekin (ekainan eta uztailan) eta positibo batekin irailan. Ibaizabalen ere, Usansolo parean (IBA370-E estazioan), larbak detektatzen dira lehen aldiz, subpositibo batekin ekainan eta positiboa abuztuan.

Urtegi nagusietatik behera, larbara-kontzentrazioari dagokionez, espeziearen hedapena aurrera doa 2020an. Zadorraren ardatzean, Ullibarri-Ganboako urtegiaren behean, larbak atzeman dira ZAD336-E estazioan bakarrik (Arroiaben, urtegitik hurbilen dagoen eremuan) eta 2020an ez da larbarik aurkitu urtegitik urrutiago dauden estazioetan (Gamarran 2017an eta 2018an, eta Trespuentesen 2018an bezal). 2020an Santa Engrazia ardatzean, ZSE246 estazioan, larbak detektatu dira (Urrunaga presatik behera).

Arratia ardatzean estazio guztietan aurkitu dira larbak, maiztasun handiagoarekin Undurragako presatik gertuen dagoen estazioan, IAR223-En, baina dentsitate baxuetan. Nabaria da abuztuko kanpaina, urtegitik aldentzen garen neurrian larben gradientea handituz baitoa. Dirudienez honek adierazten du larben produkzioa ibaian bertan dauden helduen jatorria duela, eta ez Undurragako urtegian.


2020an ez dira Nerbioi ibaian larbak detektatu, ezta Ibaizabal behean eta Undaben ere. Lingortako urtegian ezta ere (2016an presentzia berria suposatu zuen)

Urteko sasoiaren arabera larben dentsitateak aldatu egiten diren arren, bistakoa da zebra muskuilua hedatzen ari dela, batez ere, populazio garatuak dituzten urtegietatik zabalduz eta espezie akuatikoen edo ur-ingurunearekin loturiko espezien (gizakiok barne) mugimenduei jarraituz ibaien ibilgu naturalak

erabiltzen dituztelarik. 2020. urtean, aldeko kokaleku berri baten kolonizazioa nabarmentzen da, Gorostiza urtegia (Barakaldo).

Landa-lanean jasotako datu fisiko-kimikoak (T^a , pH, oxigeno disolbatua eta eroankortasuna) ABEEren azken Txostenean daude kontsultagai. Espeziearen garapenerako mugatzaileak diren aldagaiek (T^a eta pH) potentzial kolonizatzaile altua edo neurrizkoa agertzen dute gehienetan.

Zehaztasun gehiagorako, kontsultatu azken Txostena (LA20171225 Ekolur-Anbiotek ABEE).




Irudia 1. EAEn zebra-muskuiluaren larbario populazioaren jarraipen-sarean sartutako laginketa-estazioen kokapena. Zebra-muskuiluaren presentzia 2020an. Besteak beste, Uribarri Ganboa, Urrunaga, Undurruga, Mendikosolo, Lekubaso eta Aixolko urtegiak daude, espeziearen presentzia konfirmatua eta jadanik ez direnak lagintzen.

Oiartzunen, 2020ko abenduaren 1n



Manu Rubio Etxarte
Biologian lizentziatua
EKOLUR INGURUMEN AHOLKULARITZA SLLko
teknikaria



Henar Fraile Fraile
Biologian doktorea
ANBIOTEK SLko teknikaria



Alberto Aguirre Gaitero
0247 kolegiatua - Euskadiko Biologoek Elkargo Ofiziala
EKOLUR-ANBIOTEK ABEEren arduraduna